| BIG. ADIERAZLEEN FITXA METODOLOGIKOA | | |
|---|---|---|
| 1 | Adierazlearen kodea eta izena | 2.02.18 Pobrezia- edo bazterketa-arriskuan dauden biztanleen ehunekoa, biztanle guztiekiko |
| 2 | Dimentsioaren/Azpidimentsioaren kodea eta izena | Dim: 2. GIZONEN ETA EMAKUMEEN PARTE-HARTZEA ETA ESKUBIDEAK<br>Azpidim: 2.02. ESKUBIDEAK |
| 3 | Helburua | Pobreziak eta gizarte-bazterkeriak biztanlerian duten eragina eta bilakaera ezagutzea, horiek murrizteko eta eragin psikosozialerako politikak eta neurriak zehaztu ahal izateko. |
| 4 | Definizioa | Pobreziako eta/edo gizarte-bazterkeriako arriskuan dauden pertsonen proportzioa biztanleria osoan. |
| 5.a | Kalkulatzeko formula | $P = \frac{\text{Pobreziako eta/edo gizarte-bazterkeriako arriskuan dauden biztanleak}}{\text{Biztanleria osoa}} \times 100$ |
| 5.b | Aldaketak iturrien kalkuluan | |
| 6 | Kalkulu-parametroen glosarioa (definizioak) | Pobreziako eta/edo gizarte-bazterkeriako arriskuan dauden pertsonak honako hiru egoera hauetako batean daudenak dira: <u>Diru-sarrera txikiekin bizi diren pertsonak</u> (diru-sarrera baliokidearen medianaren % 60, edo kontsumo-unitatearen arabera, elkarrizketaren aurreko urtean), eta/edo <u>gabezia material larria duten pertsonak</u> (definitutako 9 itemetatik 4) eta/edo <u>enplegu-intentsitate oso txikia duten etxeetan bizi direnak</u> (elkarrizketaren aurreko urteko lan-potentzial osoaren % 20tik behera). Bi edo hiru baldintzatan sartuta egonez gero, pertsonak behin bakarrik zenbatuko dira.<br>**Gabezia material larria** bederatzi kontzeptu hauetatik gutxienez lau nozitzen dituzten etxeetan bizi den biztanleriaren proportzioa da:<br>1) Ezin du oporretara joan urtean astebete gutxienez.<br>2) Ezin du jan haragi, oilasko edo arrainik, gutxienez bi egunean behin.<br>3) Ezin du etxebizitza tenperatura egokian mantendu.<br>4) Ez du ezusteko gastuei aurre egiteko gaitasunik (650 euro).<br>5) Atzerapenak izan ditu etxebizitza nagusiarekin lotutako gastuen ordainketan (hipoteka edo alokairua, gas-ordainagiriak, komunitatea...) edo eperako erosketak azken 12 hilabeteetan.<br>6) Ezin du automobilik eduki.<br>7) Ezin du telefonorik eduki.<br>8) Ezin du telebistarik eduki.<br>9) Ezin du garbigailurik eduki. |

| | | |
|---|---|---|
| | | **Lan-intentsitate oso txikiko etxeetan bizi diren pertsonak**<br>0-59 urte bitarteko pertsonak, lan egiteko adinean dauden kideek elkarrizketaren aurreko urtean (diru-sarreren erreferentzia-aldia) beren lan-potentzial osoaren % 20 baino gutxiago lan egin zuten etxeetan bizi direnak. Etxeko kideek erreferentziako urtean lan egin duten hilabete kopurua kalkulatzen da, eta, bestalde, kide horiek teorikoki lan egin zezaketen hilabete kopurua. Ratioa kalkulatzen da eta % 20tik beherakoa den zehazten da.<br>Aldagai hori ez da aplikatzen 60 urteko eta gehiagoko pertsonen kasuan.<br>Adierazle honen adibide gisa, lanaldi osoan heldu batek soilik lan egiten duen bi heldu dituen etxe batean, lan-intentsitatea % 50 izango litzateke; biek lanaldi osoan lan egiten badute, berriz, % 100; heldu batek lanaldi erdian lan egiten badu eta besteak lanaldi osoan lan egiten badu, berriz, lan-intentsitatea % 75 izango litzateke. |
| **7** | **Adierazlearen kalitatea** | |
| 7.a | Sorburu duten eragiketaren kalitateari buruzko txostenak | Bai<br>https://eu.eustat.eus/estadisticas/tema_136/opt_3/tipo_7/ti_pobrezia-eta-gizarte-desberdintasunak/temas.html#el |
| 7.b | Arazoak espazio-eremuren batean | - |
| 7.c | Hala badagokio: -Laginketa-errorea | Bai |
| 7.d | Hala badagokio: - Laginketatik kanpoko erroreak | - |
| 7.e | Eskuragarri ez egoteko arrazoiak | - |
| 8 | Neurketa-unitatea | % |
| **9** | **Informazio-iturria(k)** | - |
| 9.a | Informazio-iturrien identifikazioa | Eusko Jaurlaritza. Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Saileko Estatistikak.<br>○ 2022 eta 2024ko Gizarte Beharren Inkestaren PGDIren Pobrezia-modulua. Taula estatistikoak<br>○ Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta 2000, 2004, 2008, 2012, 2016 eta 2020<br>○ Gizarte Zerbitzuen Eskariaren Estatistika / Gizarte Premiei buruzko Inkesta 2014 eta 2018.<br>Eustat |
| 9.b | Iturri-mota: laginekoa, erregistrokoa, erroldakoa… | Laginekoa |
| 9.c | Informazio mota (gutxi gorabeherako balioa; behin-behineko balioa; aurreratutako balioa; behin betiko balioa; serie-haustura; azaldu ezina) | Behin betiko balioa |
| 9.d | Iturrietarako esteka(k) | https://www.euskadi.eus/informazioa/pobreziaren-eta-gizarte-ezberdintasunen-inkesta-pgei/web01-s2enple/eu/<br>https://www.euskadi.eus/informazioa/gizarte-zerbitzuen-eskariaren-estatistika-gizarte-premiei-buruzko-inkesta-gzee-gpi/web01-s2enple/eu/<br>https://eu.eustat.eus/estadisticas/tema_136/opt_0/tipo_1/temas.html |

| | | |
|---|---|---|
| 10 | Nazioarteko eta nazioko kodeak (World Bank, ELGA, Eurostat, …) | ERPE (pobrezia- eta/edo bazterketa-arriskuan dauden pertsonak)<br>AROPE (At Risk of Poverty and/or exclusión) |
| **11** | **Kalkuluaren ardura duen erakundea** | Eusko Jaurlaritza. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila. |
| 11.a | Kargu politiko arduraduna: izena, abizenak, telefonoa, posta elektronikoa | - |
| 11.b | Kalkuluaren arduradun teknikoa 1: izena, abizenak, telefonoa, posta elektronikoa | - |
| 11.c | Kalkuluaren arduradun teknikoa 2: izena, abizenak, telefonoa, posta elektronikoa | - |
| 12 | Biztanleria-eremua | EAEko biztanleria |
| 13 | Seriearen denbora-estaldura | 2004-2024 |
| 14 | Maiztasuna | Bi urtean behin. 2004. urtetik, lau urtean behin, pobreziari eta gizarte-desberdintasunei buruzko inkestaren datuekin. 2014. urtetik, bi urtean behin, gizarte-zerbitzuen eskariaren estatistikako/gizarte-premiei buruzko inkestaren datuekin. |
| 15 | Argitalpen-data (eskuragarri dagoen azken datua) | 2026/03/25 |
| 16 | Hedadura geografikoa | EAE |
| 17 | Fitxaren azken eguneratze-data | 2026/06/12 |
| **18** | **Informazioa artxibatzea** | XLSX, CSV; HTML |
| 18.a | Artxibo-euskarria(k) | |
| **19** | **Hedapena** | |
| 19.a | Erakunde arduraduna | Eusko Jaurlaritza. Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Saileko Estatistikak. |
| 19.b | Sarbide mugatua | |
| 19.c | WEBGUNEA | 2024ko PGDIren Pobreziaren Taula estatistikoak - Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila - Eusko Jaurlaritza - Euskadi.eus |
| 19.d | Paperezko argitalpenak/argitalpen elektronikoak (aurrerapen- eta jarraipen-txostenak) | Elektronikoa |
| 19.e | Online datu-basea | Bai |
| 20 | Oharrak | |